

Natur Bideoentziklopedia

IV

ANIMALIAK IHARDUNEAN

METROVIDEO

113077

VHS

# ANIMALIAK IHARDUNEAN



## Gazteentzako Natur Bideoentziklopedia

IRAUPENA
210 MINUTU

IV

4.995 pezeta
BEZ barne



a



c



b



e1 e2 e3



d

- HEGAZTIEN MOKOAK
- ANIMALIA TXAPELDUNAK
- ANIMALIEN OIHUAK: KURRINKA, GARRASIA, TXISTUA
- URA, BIZITZAREN OINARRIA
- URAZPIAN, ARROKEN ARTEAN HARRAPATUTA
- ARMIARMAK
- INBADITZAILEAK



Etxe-sagua bere senaz baliatu da gizonarengana hurbiltzeko janari bila.

Armiarma arra, askoz handiagoa den emearen azpiko aldetik igotzen.





¿Mokoak komunikatzen ote dira?



Hegoaldeko zuhaitz-igela estal garaiko kantak probatzen.




IV

# ANIMALIAK IHARDUNEAN

## 1 ZINTA

### HEGAZTIEN MOKOAK

Hegaztiek orohar bosgarren gorputz-adar gisa erabiltzen dute mokoa. Erabilgarritasun eta helburuaren arabera, itxura, tamaina, gogortasun eta are kolore desberdinak ere hartzen ditu.
Hegaztien mokoen moldaketari buruzko azterketa egingo dugu. Ezagutuko ditugu "denetarako moko"a, inongo espezialtzerik gabe hegaztiak edozein helburutarako erabiltzen duena (erroiak, belabeltzak, ipar-beleak...), hazi-jaleenak, arrantzaleenak, "sastakatzaileak", intsektu-jaleenak eta beste asko eta asko ere.

### ANIMALIA TXAPELDUNAK

Atal honetan ibilaldi harrigarri eta atsegin bat egingo dugu marka desberdinak hausten dituzten animali espezie guztietan barrena: lauoinekoen abiadura-marka (gepardoak) edo bikoena (ostrukak), jauziarena (kanguruak), erresistentziarena (itsas- hegaztiek), hegaldatzearena (kolibriak), igeri egitearena (pinguinoak)...
Era berean ezagutuko ditugu pisu-altxaketako txapelduna, gehien edaten duena, kosk gehien egiten duena, etab.
Gizonak animali munduan duen marka bakarra: burmuin handiena pisuaren aldean.

### ANIMALIEN OIHUAK: KURRINKA, GARRASIA, TXISTUA

Animaliek hitz egiten ez jakin arren, komunikatu egin daitezke, soinu-adierazpide desberdinen bitartez.
Animalia asko izugarri zaratatsu bilakatzen dira estal garaian, altzeak, txitxarrak, apo eta igelak, etab.
Horietaz gain, eztarri-soinu ugari daude, ez bakarrik espezie bakaoitzari dagozkionak, baita espezie berean egoera bakoitzerako ere.

*Iraupena: 90 minutu inguru.*

## 2 ZINTA

### URA, BIZITZAREN OINARRIA

Afrikako sasoi lehorrean, eguzkiak labeak bezala kiskaltzen du. Lautadako izaki guztiak ibiltzen dira etsi-etsian ur bila.
Afrikako hegoekialdean dagoen Etoshia Parke Nazionala lurralde eskerga da, ibairik gabea, eta sasoi lehorrean, animalia guztiek, lagun zein arerio, bertako putzu gutxietara jo behar izaten dute ur bila.
24 ordu emango ditugu putzu horietako batean, eta ikusiko dugo animaliak lehorte garaian nola dauden elkarbizitza egitera behartuta.

### URAZPIAN, ARROKEN ARTEAN HARRAPATUTA

Itsasoak behera egiten duenean, itsas bazterreko arroketan putzu txikiak geratzen dira, bertan bizi-unibertso oso bat abandonatuta geratzen delarik urak gora egitean dena atzera aldatzen den arte. Putzu horietako batean sartuko gara, hurbiletik ikustera, eta bertan geratu diren animaliez osaturiko akuario oso bat aurkituko dugu.

### ARMIARMAK

Armiarmek, orohar, oso prentsa txarra izan dute beti.
Baina ondo begiratzen badiegu, dauden animaliatxo liluragarri eta iaioenetakoak direla ohartuko gara.
Hogeita hamar mila armiarma espezie ezagutzen dira; tamaina desberdinak dituzte, orratz-buruarenetik eskua bezain handietara doazenak.
Atal honetan armiarmen mundu liluragarriak duen prentsa txarraren zati bat ezabatzea lortuko dugu.

### INBADITZAILEAK

Gure landa eta are etxeetan ere bizi diren animalia gehienak ez dira bertakoak jatorriz. Inbaditzaileak dira, itsasontzietan iritsiak, batzuetan bidaiariek nahita ekarriak. Animalia hauek guztiak, "inbaditzaileak" esango diegunak, bizkor moldatu ziren, senaz baliatuz gizonarengana hurbiltzeko janari bila. Sagu, arratoi, txolarre, untxi, urtxintxa etabarren kasua da.

*Iraupena: 120 minutu inguru.*

**AZALEAN**

*a) Aurpegi mitologiko bat, arrain adarbakarrarena. • b) Bi oinekoen abiadura-marka ostrukak dauka. • c) Ura, bizitzaren oinarria... baita katukide honentzat ere. • d) Siamang giboiak oihu biziak egiten ditu bere lurraldea mugatzeko. • e) Okilen mokoaren morfologia desberdinak. 1.- Okil gibelnabarrarena. 2.- Okil txikiarena. 3.- Okil ertainarena.*

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAILAREN LAGUNTZAZ EGINA. EIMA PROGRAMA 1991

Obra grabatuaren produktore eta jabearen eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta dago euskarriaren birprodukzio zein erabilera-lagatzea, eta baita proiekzio publiko, irrati-hedapen nahiz komunitate-bideoz egindako erabilera ere.

Banatzailea, **IMAGEN 35 & ASOCIADOS, S. L.**
Torres Quevedo, 1 - Parque Tecnológico de Madrid

Lizentzia zkia 35.309 • Ikusle Guztientzat • Anglia Limited-ek produzitua • Ingeles Nazionalitatea • Titularra: Imagen 35 & Asociados, S. L.
D. L.: M-37358-1992 • Iraupena: 210 minutu inguru

Survival Anglia Limited-ek Imagen 35 y Asociados, S. L. -ri laga dizkio eskubideak Espainian eta Portugalen

METROVIDEO
113077
VHS